

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0 positibo berri	1.561 hildako EAEn	2 positibo berri	515 hildako
2.313 positibo guztira*	22 UCIn, EAEn	5.302 positibo guztira	11 UCIn
*Hernanin 60, Astigarragan 20		Sendatuak: EAE 16.757, Nafar. 6.404	

## Abian da 'Erresistentzia kutxa' izeneko kanpaina, etxeko langileei laguntza ematea helburu duena

Covid-19a tarteko, etxeko langile «asko eta asko» oraindik egoera zurgarriagoan geratu direla eta, 'Erresistentzia kutxa' jarri du martxan SOS Arrazakeriako etxeko langileen taldeak, hainbat mugimendu feministarekin batera.

### HERNANI ERRESISTENTZIA KUTXA

Koronabirusak eragindako egoera honek, etxeko langile «asko eta asko» oraindik egoera zurgarriagoan geratu dira, «apenas bizitzeko baliabiderik gabe». Hori dela eta, SOS Arrazakeriaren baitan antolatzen den etxeko langileen taldea martxan jarri da, hainbat herritako mugimendu feministekin batera, eta *Erresistentzia kutxa* osatzeko kanpaina abian jarri da.

Hernaniko hainbat komertzio eta tabernatan daude ku-

txak; hala nola, Kide tabernan, Lurreko dendan, Kale Nagusiko Aliproxen eta Gardanbera denda. Diru bilketarako kutxak dira, eta antolatzaileek jakinarazi dute, badagoela aukera kontu korronte bidez egiteko donazioa, zenbaki honetan: 2095 5013 70 9114 1222 35. Kontzeptuan «etxeko langileen erresistentzia kutxa» jartzea gomendatu dute, ingresoa egitean.

Parte hartzeko deia luzatzeaz gain, mezu hau helarazi nahi izan dute: «zaindu ditzagun, zaintzen gaituztenak!». **K**



Kide, Lurreko, Aliprox eta Gardanberan aurkitu daitezke Erresistentzia kutxak.

## Garbigunea zabalik egongo da, asteburuetan ere

Garbiguneak asteburuetan ere martxan izango direla iragarri du San Markos Mankomunitateak; eta garbiketa eta mantentze lanak egin ahal izateko, atek «15 minutu beranduago ireki eta 15 minutu lehenago ixten dira», adierazi dute.


### URUMEA GARBIGUNEA

San Markos Mankomunitateak jakinarazi du Garbiguneek asteburuetan ere atek irekiko dituztela. Azaldu du, «garbiketa eta mantentze lanak» egin ahal izateko, 15 minutu beranduago ireki eta 15 minutu lehenago itxiko dituztela. Horrela, irekita egongo dira Garbera, Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Atotxa-Errekako garbiguneak. Hala ere, berrerrabiltzeko gunea itxita egongo dela jakinarazi dute, «besterik jakinarazi arte».

### Hernaniko ordutegia, ezberdina neguan eta udan

Uztailak 15 arte neguko ordutegia izango du Hernaniko garbiguneak: astelehenetik ostiralera, 09:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 18:30etara; eta larunbatetan, 09:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 17:50ak arte.

Udako egutegiak, aldiz, beselako ordutegia izango du. Hori horrela, uztailak 15etik irailak 15era bitartean, goizez bakarrik egongo da: astelehenetik ostiralera 09:30-14:00; eta larunbatetan, 09:30-13:30. **K**



Garbiguneak asteburuetan ere irekiko ditu atek, ohiko ordutegian.

**MLE**  
MARTUTENE  
Lanbide Eskola

**Oinarrizko Lanbide Heziketa**

ELEKTRIZITATEA  
ELEKTRONIKA

INFORMATIKA  
KOMUNIKAZIOAK

AURREMATRIKULA  
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001  
info@fpmartutene.org  
fpmartutene.org

**JAMER**  
TABERNA

GAUR  
irekiko ditugu atek

EGIN ZURE  
ERRESERBA

MENUA ETA KARTA

943 33 08 58  
Astelehen eta asteartean itxita

FUNERARIA  
ORBEGOZO  
BEILATOKIA

Asegururik  
ba al duzu?  
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.  
943 33 10 20  
www.funerariaorbegozo.com

Zerbitu partikularrak eta asperu etxeekin  
Beilatokiak

Ernusketak  
Lekualdatzek  
Eskelak, korak...

HERNANI  
ANDOAIN  
ASTIGARRAGA  
URNIETA  
GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

**GAUR** Oraindik freskotik jarraituko duen arren, tenperaturak zertxobait gora egingo du, eta ipar-mendebaldeko haizea bizi-bizi ibiliko da. Eguna lainoan hasiko da, baina ateri eutsiko dio eta arratsaldean ostarte zabalak irekiko dira. **Min.13° / Max.19°**

**BIHAR** Tenperatura mantendu eta euri zaparrada trumoiatsuak itzuliko dira. Egusentzi argi samarra izango da, baina pixkanaka hodeiak sartu eta arratsalderako lainotuta geratuko da zerua. **Min.14° / Max.20°** (euskaletan)



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Antzerkia etxetik ikusteko aukera gaur, Vito Rogadoren eskutik

COVID-19ak eragindako alarma egoeratik ekitaldia online formatuan izango da, 19:30etan.

**HERNANI ANTZERKIA**

Azken hilabetetako pandemia dela eta, online antolatu ditu kultur ekintza ugari, egoerara egokituta, Hernaniko Udalak. Eta gaurkoan, Vito Rogadoren txanda izango da: *Arreglalo tú misma sin salir de casa* antzerkia eskainiko du, 19:30etan hasita. Pieza labur bat grabatuko du sortzaileak, eta ikusgai izango da Hernaniko Udalaren



Vito Rogado aktorearen antzerkia, online. Argazkia: 'Carrera de Obstáculos'.

Youtubeko kanalean eta webgunean ([hernani.eus](http://hernani.eus)).

Udalak adierazi izan du, alarma egoerak «kultur ekitaldiak antolatzeke modua goitik

behera aldarazi» duela. Eta horrelako ekitaldiak Biterin egitea ezinezkoa bada ere, «kultura hernaniarren etxeetara» eramaten jarraituko dutela. **K**

## Zabor ugari geratu da Goizuetako erreka bazterretan, asteburua igarota

Pasa den asteburuan, jende ugari ibili zen Goizuetako erreka inguruan, eguraldia aprobetxatzen. Hala ere, askok «zentzugabe jokatu, eta zabor pila utzi» zuten bertan.

**GOIZUETA ZABORRA**

Aurreko asteburuko eguraldia aprobetxatzeko asmotan, askok erreka joateko plana egin zuten. Baina zenbaiten jarrerarekin kritiko azaldu da Goizuetako Udalak: «erreka bazterretan hurbiltzea oso ondo dago, baina zaborra bertan uztea ez».



Latak, plastikoak... mota guztietako zaborra topatu dute Goizueta inguruan.

Izan ere, Goizueta eta Arranbide bitartean, erreka bazterretan «zabor asko» aurkitu dutela azaldu du, eta argi utzi du, naturaz gozatzea ederki dagoela,

baina ingurua ere zaindu behar dela. Hau guztia berriz ez errepikatzea ere eskatu du, eta bakoitzaren zaborra eraman edo jasotzeko «erregua» luzatu du. **K**

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Barearen ostean dator ekaitza

Eguraldi ona hasi eta bake-bakean zegoen Urumea ertzak hasi dira bisitariz betetzen. Ur garbi hauetan bainua hartzea ohikoa da, baina, tamalez, ohi-tura okerragoa ari da errotzen paraje hauetan, zabor poltsen etengabeko ugaritzea. Aurten gainera, ezohiko egoera honek bisitari gehiago ekarriko dituela iruditzen zaigu, hondartzen eta igerilekuen edukiera mugatua egongo baita.

Bisitariak, gainera, parrilak

gain lurreko suak pizten dituzte, horrek sortzen duen arriskurakin (maiatzeko azken asteburuan ikusitako ekintza). Ikusita inguruak sasi, sastraka eta landarez beteta daudela, iruditzen zaigu horrek ondorio larriak ekar ditzakeela.

Urumea bailara denok zaindu behar dugu, bertan urte guztian zehar ibiltzen garenek zein urte sasoi batean bakarrik etortzen direnek. Pasa den aste honetan ikusi dugu, urte guztian

garbi egon den bailara zaborrez betetzen ari dela. Ikusten da jendearen kontzientziario maila oso baxua dela eta oraindik asko dagoela jorrazteko.

Bisitan datozenei arduraz jokatzeke eskatzen diegu, sortzen dituzten zaborrak behar bezala kudeatuz eta arretaz jokatuz. Garbi mantendu dezagun daukagun altxor hau.

Joseba Zabalegui Oyarbide

## Amasa-Villabonan bertso saioa, bi txandatan

Bertsotan arituko dira gaur bi saiotan, Gudari Plazan. 18:30etan hasi, eta bigarrena 20:00etan izango da.

**URUMEA BERTSO SAIOA**

Amets Arzallus, Haritz Mujika, Maialen Lujanbio, Miren Arretxe eta Imanol Artolak bi bertso saio eskainiko dituzte, Amasa-Villabonako Gudari Plazan, eta 18:30etan hasiko da lehenengoa. Hala ere, eguraldi txarra eginez gero, aterpean egiteko erabakia hartu dute. Bi saioetan 80 laguntzako lekua egongo da, baina noski, gonbidatuak txandakatu egingo dira.

Astehenean jarri ziren es-

kuragai lehenengo saiorako sarrerak, eta berehala agortu ziren. Horregatik, haren segidan bigarren txanda bat egitea erabaki dute antolatzaileek. Gai-jartzailea Imanol Artola izango da bietan, eta bertsolariak ere, berberak izango dira.

**Distantzia mantentzeko, segurtasun neurriak**

Saioak izango diren eremura sartzeko eta ateratzeko, «maskara derrigorrezkoa izango da, eta sartzeko ordutegiak adieraziko dira gonbidapenetean, jende pilaketak ekiditeko. Behin sartuta eta eserita, maskara kendu ahal izango da, ikus-entzuleen arteko distantziak bermatuta». Osasun gomendioek eskatu bezala, «saiotik saiora eserlekuak garbituko dira». **K**

## Kontzentrazioa bueltan da, gaurtik

**HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK**

Asteroko dinamika berreskuratzeko asmotan, gaur iluntzeko 20:00etan kontzentrazioa egingo da Zinkoenean, ostiralero egin ohi den moduan, euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde. «Alarma egoeratik familia eta lagunek hiru hilabete darma-zkigu senide presoak aurrez aurre ikusi gabe», azaldu dute.

**IRAGARKI MERKEAK**

**Etebizita bat alokagai.** Bi gela ditu eta dena kanpokaldera. **Deitu: 619 81 33 57 Iñigo Royo Masajlsta.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

## aurreMARIKULA

Ekainak

1 → 19

03 GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

---

02 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

01<sup>3</sup> OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

---

943 5519 58

idazkaritza@hernanilanh.eus

Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANILHII

www.hernanilanh.eus